

# Urteroko ardatzari biraka

Adin orotako jendearentzako ekitaldiak izango dira

Sanjoanetako egitarauari begira, badirudi ez dagoela berrikuntza handirik, beraz, aurreko urteetako ildo beretik jarraituko dute: Lizarrako dultzaineroak, San Joan sua, danborrada, su artifizialak, pilota partidak, zezenak, berbenak...

Poxpolok, Udaleko euskara eta kultur teknikariak, esan digunez, «jaiak tradizioan oinarrituta daude, eta normalean, ez da gauza berri asko izaten. Egitaraua adin guztietako jendearentzako dago, eta jendea elkartzeko, plaza da leku egokiena. Horrela, dultzaineroak eta danborrada plazan, kalean, egiten dira. Guk, jendearen proposamenak kontuan hartzen ditugu, neurri batean, jaietako ardatza errespetatu behar baita: dultzaineroak, danborrada, suak...».

Aurten bi berrikuntza nagusi izango dira: Txikitoren jaia eta Kubako kioskoa. Kubako Kioskoa Txantxa Zelain jarriko

dute, asteartea arte, eta bertan Kubako produktuak dastatzeko aukera, argazkien erakusketa, dantza erakustaldiak eta, egunero, hiru musika emanaldi zuzenean egingo dira. Biltzen den dirua Kubako haur hezkuntzari eta osasungintzari laguntzeko erabiliko da. Poxpoloren hitzetan, «kiosko hau egiteko ideia Oarsoaldetik etorri zitzaigun, bertako garapen ekonomikorako elkarteak hitzarmena sinatu zuen Kubako La Habana probintziarekin, eta ideia hori proposatu ziguten».

Bihar, 23:30ean, Untzagan Soka-dantza egingo dute, Eibarko agintari, txistulari eta Kezka dantza taldearekin. Soka-dantzak historia luzea du, Eibarren, gutxienez XX. mende hasieratik egiten zen dantza hau, eta XVIII. mendean Arrateko jaietan ere dantza hau egiten zela erakusten duen grabatu bat ere badago. Oier Araolaza Kezka-ko kideak



Haurren danborrada, soka-dantza, dultzaineroak....aurten ere nobedade gutxi izango dira jaietan.

## KALEKO JAIA

Txosnak Alfa ostean jarriko dituzte; barrakak, berriz, Txantxa Zelain

azpimarratu digunez, «1936. urte arte normal egiten zen, gero, gerra zela eta, 1943-44 urte arte ez zen berriro egin, eta urte horietatik 1967-68 arte dantza egiten jarraitu zen, baina garai hartan goizez egiten zen, meza nagusiaren ostean. Gero, politika aldetik urte mugituak izan genituen, eta dan-

tza taldeetan ere dantza berriak sartu zirenez, 1994. urte arte ez zen berriro egin. Orduetik hona urtero egin dugu, baina gauez, orain jaietan gauez mugimendu gehiago dagoelako». Eibarko alkate eta zinegotziek ere parte hartuko dute Soka-dantzan.

## Urteurrenak

Arrate Kultur Elkarteak eta Narruzko Zezen antzerki taldeak urteak bete dituzte aurten, eta beraientzat sanjoan bereziak izango dira. Arrate Kultur Elkarteak 50 urte bete ditu, eta Narruzko Zezenek 25. Horregatik, San Joan bezpe-

ran, igandean, Arrate Kultur Elkarteak presidenteak, Jesus Mari Gisasolak, eta Txema Cornago Narruzko Zezen-eko arduradunak pregoia botako dute. Honen inguruan zera adierazi digu Txema Cornagok: «Narruzko Zezen 1972an sortu zen, baina Antzerki Jardunaldiak antolatzen duela 25 urte hasi ginen, eta horixe ospatzen dugu».

Udalak jaietarako prestatu duen egitarauaz gain, izango da bestelakorik ere herrian. Hala, kaleko jai giroa bultzatzeko horren beharrezko bilakatu diren txosnak Alfa enpresako patioan ipiniko dituzte aurten, eta barrakak, berriz, Txantxa Zelain.

**GURBIL**  
Jatetxea  
ONDO PASA  
SAN JUANETAN!  
Isasi, 1  
Tel.: 943 20 11 52  
EIBAR

**LA EIBARRESA** GOZOTEGIA  
OKINDEGIA  
EIBARKO JALETAN ZATOZ  
GURE IZOZKIAK DASTATZERA !!  
Untzaga Plaza • Tel.: 943 20 70 75

**RESTAURANTE**  
**URKO**  
JATETXEA  
Menuak eta Karta  
“Ondo pasau jaixak”  
Otaola hiribidea, 3 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 70 08 30

**San Andres**  
GOZOTEGIA  
Bidebarrieta, 28 • 943.20.79.73 EIBAR  
Etkez etxeko banaketa  
Jai zoriontsuak eibartar guztioi

**GARAIONDO-BASTIDA**  
Burdindenda  
Barakaldo, 9 - EIBAR - Tel.: 943.12.02.08 / 943.12.02.12

**HILBERA**  
TABERNA  
Jai alai eta zoriontsu batzuek pasafu!!  
San Andres, 7 behea  
Tel.: 943 20 83 43  
EIBAR

ayerbeliburuak@planet.net  
**J. SALABERRIA**  
BITXITEGIA - ERLOJUDENDA  
Jai alai eta zoriontsuak opa dizkizuegu  
Errebal, 22 • Tel.: 943 20 20 79 • EIBAR

**EIBARKO ESKOLAK**  
Amaña LHI  
Arrateko Andra Mari LHI  
JA Mogel LHI  
San Andres LHI  
Urkizu LHI  
San Juan alaiak opa dizkizuegu.